

## NOLA ERABILI

## 6. GELTOKIA

Bideoa ikusi aurretik, gida didaktiko honetako orrialdeen kopiak egin eta ikasleei banatzea proposatzen dizuegu. Horrela, ikasleek bideoan ikusiko dutenaren berri izango dute eta errazago ulertuko dute bideoan esaten dena. Bideo-gelako saioak ikasitakoaren berrikustea izan behar du. Ikasgelan egindako lana finkatzeko saioa, alegia.

Bideoan lau atal nagusi bereizi ditugu.

### DEKLINABIDEA -atarikoak-

03:30

### *PROPOSAMENA*

Atalari dagozkion orrialdeetako kontzeptuak eta adibideak landu, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

# OINARRIAK EUSKARAZ ABIATZEKO

## 6. GELTOKIA

### **DEKLINABIDEA -atarikoak-**

Euskaraz deklinabide-kasuak adierazteko atzizkiak erabiltzen ditugu, eta atzizki horiek, beti, hitzei loturik doaz.

Xabier Londresen dago, Xabier Londresera doa, Xabier Londrestik dator.

*Xabier* -pertsonezko izena-.

*Londres* -hiri izena-.

*Dago, doa eta dator* -aditzak-.

*-en, -ra eta -tik* -deklinabide-kasu atzizkiak-.

Deklinabide-kasuak izendatzeko, kasu bakoitzaren galdetzailea bera erabili ohi dugu.

Xabier Londresen dago. Nor dago Londresen? Xabier.  
*Nor* da galdetzailea; beraz, Xabier NOR kasua da.

Xabier Londresen dago. Non dago Xabier? Londresen.  
*Non* da galdetzailea; beraz, Londresen NON kasua da.

Xabierrek Londresera eraman du  
NORK NORA

Xabierri Londrestik deitu diote  
NORI NONDIK

Hizkuntzalariak kasuak izendatzeko beste sistema bat erabiltzen dute: NOR kasuari absolutiboa esaten diote, NORI kasuari datiboa, NORK kasuari ergatiboa, NONDIK kasuari ablatiboa eta abar.

Guk izen horiek aipatu aipatuko ditugu, baina, oro har, kasuak izendatzeko galdetzailea erabiliko dugu.

Lehengo adibidean, Xabier izena erabili dugu eta dena ongi joan zaigu. Baina Xabierren ordeaz harria jarriko bagenu?

Harria Londresen dago.

*Harria Londresen dago.* Orain ezin dugu galdetu: *Nor dago Londresen?* Harria ez baita biziduna. *Zer dago Londresen?* galdetu behar dugu. Orain galdetzailea *Zer da*, beraz, harria ZER kasuan dago.

Dena dela, gauzak gehiegi ez nahasteko, galdetzailerik erabiliena hartuko dugu kasua izendatzeko. Esaterako, NOR kasuak hainbat galdetzaile ditu:

**Nor:**

**Nor, Nortzuk, Zer, Zein, Zeintzuk, Zenbat**

Guk galdetzaile horiei erantzuten dien hitza NOR kasuan dagoela esango dugu. Ikus ditzagun NOREKIN kasuaren galdetzaileak:

**Norekin:**

**Norekin, Nortzuekin, Zerekin, Zeinekin, Zeintzuekin, Zenbatekin**

Guk galdetzaile horiei erantzuten dien hitza NOREKIN kasuan dagoela esango dugu. Horrela jokatuko dugu kasu guztiekin.

Jarraian, euskal deklinabide-kasuak aztertuko ditugu banan-banan. Hasteko esango dizuet deklinabide-kasuak bi multzo nagusitan sailka daitezkeela: batetik kasu ez-gramatikalak dauzkagu eta bestetik kasu gramatikalak.

## Kasu gramatikalak

////

## Kasu ez-gramatikalak

Kasu gramatikalek zuzen-zuzen eragiten dute aditzean. Hau da, perpausan agertu bezain pronto aditzak itxura aldatzen du. Baina kasu horiek aurreraxeago ikusiko ditugu. Bestalde, kasu ez gramatikalak dauzkagu. Azken hauek ez dute inolako eraginik aditzean. Horiexek aztertuz hasiko gara.

## Liburuak

ZUBIRI, Hilari ; ZUBIRI, Entzi:  
*Euskal Gramatika Osoa,*  
Didaktiker, Bilbo, 2000.

ZUBIZARRETA, Aitor; DORRONSORO, Mikel; ZUBIMENDI,  
Josemari:  
*Gramatika Gaitasuna Lantzen,*  
Euskara Zerbitzua, Glotodidaktika-lanak. Gasteiz, 2000.

EUSKALTZAINDIA:  
*Euskaltzaindiaren arauak,*  
Euskaltzaindia, Bilbo, 1994-2000.

## Orri elektronikoa

[www.hiru.com](http://www.hiru.com)